

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 300/2019 Foru Agindua, urriaren 31ekoa, Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa egiten duena, El Campillar 7 poligonoko 1324, 1325, 1326, 1327, 1328, 1329, 1330, 1331 eta 1332 lurzatiak birkalifikatzeari buruzkoa

Erreferentziatzko aldaketa puntualaren izapidetzea Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aldaketa puntual horren inguruko hirigintza agiria eta ingurumen dokumentu estrategikoa jaso ditu, Guardiako Udalak igorria, 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukiari jarraitzen diona. Ingurumen agiri estrategikoak "jasangarritasun energetikoko azterlana" jasotzen du, EAEko jasangarritasun energetikoaren otsailaren 21eko 4/2019 Legeak agintzen duena betez.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, 2019ko ekainaren 25ean kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 45 egun balioduneko epearekin, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko urriaren 24an eman du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/98 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena.


Guardiako Udalak sustatzen du, Fincas San Baldomero SLk eskatuta, (El Campillar) 7 poligonoko 1324, 1325, 1326, 1327, 1328, 1329, 1330, 1331 eta 1332 lurzatiak birkalifikatzeari buruzko aldaketa puntuala. Lurzatiek 52.390 m²-ko azalera hartzen dute guztira eta "Birgaitu beharreko basogintzako babes lurzoruko lurzoru urbanizaezin" sailkapena eta kalifikazioa daukate; "Nekazaritza intereseko babes lurzoruko lurzoru urbanizaezin" kalifikazioarekin birkalifikatu nahi dira.

A-124 errepidearen ertzetik 50 metroko zerranda, eremuko mendebaldean, "Komunikazio eta Azpiegituren Sareetarako Babes edota Erreserba Lurzoru Urbanizaezin" gisa kalifikatuta dago.

Aldaketa puntualaren ondorioz, tinkotu ahalko da lurzatietan gaur egun dagoen nekazaritza erabilera eta gainera etorkizunean upeltegi bat eraiki; horretarako, plan berezi bat izapidetu beharko litzateke, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura bete beharko zuena betiere. Hori dela eta, esan daiteke, ingurumeneko agirian jasotzen denez, aldaketaren eremuaren ondoan beharrezko diren zerbitzu guztiak daudela: hornidura, elektrizitatea, telekomunikazioak eta saneamendu sarea.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Proposatzen den aldaketa puntualaren hirigintza birkalifikazioaren eremua El Campillar aurkintzan kokatzen da, izen bereko auzotik 200 metrora bakarrik eta Assako herritik 1,5 kilometrora. Den-dena Guardiako udalerrian Arabako Errioxako eskualdean. Ebro ibaiaren KBEren Natura 2000 Sareko espazioa kilometro batera dago.



1.3. Aztertutako aukerak.

Hauek dira aldaketa puntualaren aukerak:

– “0” aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): ekimena ez gauzatzea eta sustatzailearen beharrei ez erantzutea ekarriko luke.

– “1” aukera (hautatua): Proposatzen du lurzatiak birkalifikatzea “Nekazaritza intereseko babes lurzoruko lurzoru urbanizaezin” gisa, kontuan izanda lurzati horiek landuta daudela duela hamarkada asko eta nekazaritzarako balio dutela. Beste aukera batzuk ez dira aintzat hartu, asmoa zelako lurrak kalifikatzea egungo erabileraren arabera.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko ekainaren 25ean, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion 45 egun baliodunez eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsonen kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	

IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Bird Life	
Guardiako Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√
Energiaren Euskal Erakundea	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/98 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

- URA – Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman zuen eta bertan zehazten zen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokitza joz gero gaiaren gainean informatzeko, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorritik.

URAK bigarren txosten bat egin zuen eta bertan esaten da aldaketa puntualaren xede den eremua ez dela uholde-arriskuko zona eta uren zaintza zonatik kanpo dagoela. Ondorioz, a priori, ez da aurreikusten lurzatiak birkalifikatzeak ingurune hidrikoari zuzeneko eraginik egingo dionik.

Aipatzen da, etorkizunean upeltegi bat jartzea proposatzen bada, nahitaezkoa izango dela beharrezko diren baliabideen zenbatespen bat eranstea eta horri erantzun beharko dio arroan eskumena duen erakundeak.

Aldaketa horrek ez du eragingo isurketa gehiago, erantsi du URAk. Hala ere, etorkizunean upeltegi bat jarri gero, aipatu behar da El Campillar herriak ez duela arazketa sistema egokia gaur egun bertan sortzen diren hondakin urak tratatzeko; hortaz, egungo egoeran ez litzaioke onartuko karga gehiago sistemari.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du aldaketa puntualak eragindago eremua Arabako Errioxako Ardo eta Mahastien Paisaia Kulturalaren eremuaren barruan dagoela, 89/2014 Dekretuak monumentu multzo kategoriako ondasun kultural kalifikatu baitzuen. Halaber, aldaketaren eremuaren barruan dago "Assako herria" ustezko zona arkeologikoa; ondorioz, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 49. artikulua aplikatzeko da. Bi oharrak ondo jasota geratu dira ingurumen agirian.

Alderdi azpimarragarriena izanik, eta ingurumen agiriak behar bezala adierazten duenez, monumentu multzoaren mugaketak barne hartu duen eremu batean egin behar diren lanetarako Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko da. Baimen hori, 7/1990 Legearen 29.1 artikuluan ezarritakoa betez, udal baimena eskuratu aurretik lortu beharko da.

Azkenik, Kultura Ondarearen Zuzendaritzan txostenean ondorioztatzen da ingurumen agiriak behar bezala jaso dituela kultura ondareari dagozkion alderdiak.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak bi txosten sartzen ditu: bata, zuzendaritzak berak izenpetua eta, bestea, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak.

Nekazaritza Zuzendaritzak izenpetutako txostenean jakinarazten da proposatutako aldaketak ez duela inolako eraginik nekazaritza jardueran, ezta nekazaritzako azpiegituretan ere, eta hirigintza kalifikazioa aldatzeak dakarrela arautzea badagoen errealitate bat.

Txostenean, halaber, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren txostenaren ondorioak jasotzen dira hitzez hitz, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuari -Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko denari- dagokionez:

– Ez dago etxolatxo, etxola edo mahatsa gordetzeko lekurik. Arestian aipatu dugun 89/2014 Dekretuan ageri da horiek babesteko araubidea.

– Ziurtatu da badaudela terrazamenduak eta laborantza bankuak. Arestian aipatu dugun Dekretuan ezartzen da horiek babesteko araubidea.

Ondorioztatzen da, bai Nekazaritza Zuzendaritzaren txostenean bai Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuarenean, planteatzen den hirigintza birkalifikazioa onetsiz gero, eta kontuan izanik aldaketa horrekin zenbait eraikuntza erabilera onartuko direla, bermatu beharko dela badauden terrazamenduak eta laborantza bankuak babesten direla eta kontuan izan beharko dela betiere eremua asko ikusten dela eta sentsiblea dela.

- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txosten bat helarazi du, eta hor adierazten da aldaketa puntualaren gai den eremuan ez zaiela eragiten bere balio historiko eta kulturalak babestutako elementu edo higieziari. Beraz, ikuspuntu horretatik ez dago eragozpenik izapidetzea egiteko.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak Natura Ondarearen Zerbitzuaren txostena bidali du, non adierazten baita birkalifikazio horren ondorioz, zenbait eraikuntza erabilera gara litezkeela. Gogorarazten da betiere erabilera horiek zehazteko plan berezi bat izapidetu beharko dela, eta horri ingurumen ebaluazioa egin beharko zaiola.

Ohar edo alegazioen txostenean jasotzen da eremuaren zati gehiena landuta egon dela duela hamarkada asko. Hala ere, zehazten da 1331 eta 1332 lurzatiek ez dutela orain eta ez dutela inoiz nekazaritzako erabilerarik izan. Lurzati horiek ingurumenaren aldetik balio berezia duen erromerodi batez estalita daude, mahastiek hartutako eskualdean mahastirik landatuta ez dagoen zoko bat baita.

Ondorioz, ekidin behar da Guardiako 7 poligonoko 1331 eta 1332 lurzatiak birkalifikatzea, eta aldaketa puntualaren eremutik kanpo geratu behar dira. Nahitaezkoa bada birkalifikatzea, eransten du Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, gutxienez debekatu beharko da eraikuntza erabilera eta ziurtatu landare estalki autoktonoari eusten zaiola, aldaketa puntualaren araudian ondo jasota geratu behar dena.

- IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: “Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan.” Era berean, hauxe dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi duenez, lurzatiak birkalifikatzeak ez du berez eragin arkeologikorik. Dena den, azpimarratzen du edozein lur mugimendu egiteko, mahastien lur iraultetak barne, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren alde aurreko baimena beharko dela, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikulua aplikatuz.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

Egiaztatu da, sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian adierazten duenez, aldaketa puntualaren xede den eremuaren zati handiena landatu ohi dela gutxienez duela hirurogeita hamabost urte. Hori dela eta, landatutako lur horiek birkalifikatzeak dakar udal planeamendua egokitzea egun dagoen errealitateari eta betitik egin diren erabilerei, eta uste da onargarria dela egindako planteamendua.

Hala ere, salbuetsi behar dira 1331 eta 1332 lurzatiak, ez baitaude landatuta ez gaur egun ez inoiz; hori guztiori egiaztatu daiteke Arabako Foru Aldundiak dituen argazki eta ortofotomapien historikoan. Bi lurzati horiek "Baso urriko lurzoru" kategorian sartzen ditu Nekazaritza eta Basogintzako ALPk; gainerako eremua, ordea, "Nekazaritza eta abeltzaintza" kategorian dago.

Aipatutako 1331 eta 1332 lurzatiaren kalifikazioa baso zonatik nekazaritza intereseko zonara aldatzeak ez luke erantzungo lur horien errealtateari; izan ere, baso izaerakoak dira argi eta garbi, euren ezaugarri edafologikoen ondorioz ez direlako egokiak nekazaritzako landaketak egiteko, ez bada lur mugimenduak egiten direla luraren profilak eta horizonteak erabat aldatzeko. Bi lurzati horiek birkalifikatzeak gainean hartu ezin den ingurumen inpaktua ekarriko luke, hain zuzen, luberritza 3.200 bat m²-ko baso azalera, landaredi autoktonoz (erromerodia) estalita, eta balio handia duena ingurumenaren aldetik. Landaredi naturalez estalitako areak kontserbatzeak laguntzen du nekazaritzako espazioen mosaiko anitz eta konplexuari eusten, basokoekin nahasiz, ekologiaren ikuspuntutik (landareak, baso fauna) garrantzi handiko bihurtuz.

Paisaiaren ikuspuntutik, esan behar da eremua Arabako Errioxako Ardo eta Mahastien Paisaia Kulturalaren barruan dagoela, 89/2014 Dekretuak monumentu multzo kategoriako ondasun kultural kalifikatu baitzuen. Mahastiko area handiagoetan sartuta dauden baso lurzatiak kontserbatzea, kasu honetan bezala, ezinbestekoa da katalogatutako eremuaren paisaia kalitateari eusteko, eta horiek birkalifikatu eta nekazaritzara aldatzea aurrekaria izan liteke eskualdeko beste zona batzuetan inpaktu gehigarriak sortarazteko. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak kontsulta fasean egin duen txosteneko oharra, ba-dauden terrazamenduen eta laborantza bankuen babesa bermatu behar dela eskatzen baitute.

Bestetik, eremua zati batean eraginda dago "Assako herria" ustezko zona arkeologikoagatik; ondorioz, lur mugimendua eragiten duen jarduera orok aldundian kultura arloan eskumena duen organoaren baimena eduki beharko du.

Azkenik, adierazi behar da ez duela ematen proposatutako birkalifikazioak, behin aterata 1331 eta 1332 lurzatiak, eragin handia izango duenik Natura 2000 Sarean.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzatzaileak

Azaldukoari atxikiz, aldaketa puntualaren aurkako ingurumen txostena egin da 7 poligonoko 1331 eta 1332 lurzatiei dagokienez. Lurzati horiek "Nekazaritza intereseko babes lurzoruko lurzoru urbanizaezin" kalifikazioari eutsi beharko diote.

Ingurumenaren ikuspuntutik bidezko ikusten da Guardiako 7 poligonoko 1324, 1325, 1326, 1327, 1328, 1329 eta 1330 lurzatiarako proposatzen den kalifikazio aldaketa egitea. Lurrok birkalifikatzean baldintza hauek bete beharko dira betiere:

– Hirigintza birkalifikazioaren ondorioz egin daitezkeen jarduerak egin beharko dira terrazamenduak eta laborantza bankuak kontserbatzen direla bermatzeko moduan.

– "Assako herria" ustezko zona arkeologikoaren eremuan egin daitezkeen jarduerak Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena eduki beharko dute baldin eta lur mugimenduak egitea badakarte.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Egitea Guardiako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa, El Campillar 7 poligonoko 1324, 1325, 1326, 1327, 1328, 1329, 1330, 1331 eta 1332 lurzatiak birkalifikatzeari buruzkoa.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 31

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA